



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko uztailaren 17an

55 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Legea, Batxilergoa, Gradu Ertaineko Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da José M^a Iribarren ikastetxe publikoan eta Ermitagaña BHIn D ereduko lerro bana ireki dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ave María ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleen taldea zatibitu dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa San Francisco ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleentzat neurriak har ditzan eskatzen da. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (9. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte-batzilergoaren irakaskuntzan, D eredua ezar dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Berako Labiaga ikastolarekin zerikusia duten zenbait neurri har ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak baztertua (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) zabalago egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak baztertua (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, gaitzetsi egiten da Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzatik egiten ari den hezkuntza-politika. Osoko Bilkurak baztertua (10. or.).
- Bardeetako Tiro Poligonoari buruzko ebazpena. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldadutzaren ordezkotza zerbitzua eta derri-gorrezko soldadutza berehala desagertzearen alde dagoela. Osoko Bilkurak baztertua (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako Labiaga ikastolako egoera konpondezan. Osoko Bilkurak baztertua (11. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagileek askatasunez preskribitzearen printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Amaierako lehen zikloko titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrak Funtzio Publikoan sartzeari buruzko ebazpena. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Mendaviako hiri garraioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arauemaileak:

- Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko Plana (1998-2005) (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Batxilergoa, Gradu Ertaineko Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Batxilergoa, Gradu Ertaineko Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Batxilergoa, Gradu Ertaineko Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukiaren zatitza jo daiteke finantza-laguntza publiko izateko eskubidea, derrigorrezko ez diren hezkuntza-mailetan. Izan ere, botere publikoek hezkuntza eta irakaskuntza finantzatzeko betebeharrak orokorra dute, Espainiako Konstituzioaren (EK) 9.2 artikulutik ateratzen denez.

Hezkuntzaren alorrean, EK-ko 27.1 artikulua jasotzen du aipatu eskubidea. Artikulu hori, ordea, Konstituzioaren 10. artikulua ezartzen duenarekin batera irakurri behar da, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Espainiak izenpetu dituen gainerako nazioarteko itunak aipatzen baititu.

Ildo horretatik, UNESCOren 1960ko Konbentzioarekin, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideei buruzko Nazioarteko Itunarekin, eta, azken

finean, 1948ko Adierazpen Unibertsalarekin bat Europako Batasunak aldarrikatu duen hezkuntzarako funtsezko eskubidea interpretatzen baldin bada, hurrengo eskubidea ere badago eskubide horren funtsezko edukiaren baitan: Estatuak arian-arian ahalbidetu egin behar diela derrigorrezko ez diren irakaskuntza-mailetara iristea gaitasun nahikoa duten haiei. Eskueran dituen baliabide publikoak erabiliko ditu horretarako, maila horietara iritsi eta bertan irauteko aukeran ezberdintasunik sor dezaketen ekonomia-gabeziak konpontzeko.

Era berean, 1950eko Europako Konbentzioaren 14. artikulua haxe xedatzen du: derrigorrezko ez diren hezkuntza-mailen finantzaketa publikoak berdintasun printzipioa errespetatu behar duela, bai aurreikuspenetan, bai laguntzak ematerakoan. EK-ko 14. artikulua eta 27.1 artikulua elkarrekin lotuz gero ere eska daiteke tratu berdini hori.

Egia da derrigorrezko ez diren hezkuntza-mailen finantzaketa publiko ez dela hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukiaren baitakoa. Horren onarpena, hala ere, EK-ko I. tituluko hirugarren kapituluaren jasotzen direnen gisako politika ekonomiko eta sozialaren gida oinarrien baliokidea-edo da.

27.9 artikulua da derrigorrezko ez den hezkuntzarako finantza-laguntza legez oinarritzeko bidea ematen duen konstituzio-xedapena, legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeentzako laguntza publikoei buruzko hura, alegia. Irakaskuntzarako askatasunaren funtsezko edukiaren baitakotzat har daiteke artikulu hori, legeak ezarritakoaren arabera, beti ere. Horrek ez du esan nahi aipatu xedapena edukirik gabe utzi behar denik, aitzitik, legegilearentzako agindua da, ikastetxe pribatuentzako laguntza-araubidea ezar dezan, Konstituzioaren mugen barruan.

Esan beharra dago ezerk ez duela eragozten laguntzak ikasleei zuzenean ematea, beken bidez, edo zeharka laguntzea, ikastetxeen bitartez. Konstituzioak berak aurreikusi du hori, edonola ere, aurrekontuan eskura daitekeenaren muga ezarri duen arren. Konstituzio Auzitegiak, ordea, hurrengo betebeharra jarri dio legegileari: "ezin da baieztapen erretorikotzat hartu, halako moldez non legegilearen esku geratuko den, erabat, laguntza hori emateko ala ez emateko aukera, izan ere, EK-ko 9. artikulua dioen bezala, botere publikoak Konstituzioaren menpe daude eta horregatik, Konstituzioaren xedapenek –agindu gisa azaldu ala ez, oraingoan bezala– lotu egiten dituzte aipatu botereak."

Konstituzio Auzitegiak azaldu duen horretatik, badirudi atera daitekeela gastu publikoaren lehen-tasunen mailaketa bat, hezkuntzaren eremuari dagokiona. Lehen-tasun horiek zehaztuz, Konstituzioaren agindua bete behar da, lehenbizi, oinarrizko hezkuntzaren doakotasunaren baldintzak bermatu beharra dago, eta baldintza horiek osatzen dute legegileari ezarri zaion mugetako bat. Konstituzio Auzitegiak beste balore batzuk ere aipatu ditu, ordea. Besteak beste, 40.1 artikulua, eskualdeen eta norbanakoen errentaren banaketa ego-kiagoa.

Derrigorrezkoak ez diren mailetan ikasten dihardutenei zuzeneko finantzaketa ematea, LODEko 1.2 artikulua eta LOGSEko 66. artikulua xedatzen dutenetik atera da. Horiexek xedatu baitute goi mailako hezkuntza-mailetara iristeko eskubidea, "gaitasunen eta zaletasunen" arabera, eta eskubide horren erabilpenak ezin duela "ikaslearen gaitasun ekonomikoaren, gizarte-mailaren edo bizitokiaren ondoriozko bereizkerien menpe egon". Bekek, hortaz, gizarte- eta ekonomia-baldintza txarrak orekatzeko helburua izan behar dute.

Horri gagozkiolarik, badira zuzeneko laguntzak, edo beka pertsonalizatuak, derrigorrezko ez diren mailetan ikasi ahal izateko, horiek eskuratzeko baldintza akademiko eta ekonomikoak erregulatzen dituzten arauak jarraituz. Derrigorrezko ez diren hezkuntza mailen irakaskuntzaren doakotasuna ordaintzeko aurrekontu-kontsignazioak ere hor daude.

Uztailaren 2ko 12/1987 Legeak hauxe ezarri zuen: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren lurraldean (Nafarroa bertan zegoen, artean) irakaskuntza doakoa izanen zela ikastetxe publikoetako batxilergo eta lanbide heziketaren mailetan. Hauxe ekarri zuen horrek, funtsean: doakotasunaren finantzaketa publikoaren ordez hezkuntzaren prestazio publikoa jartzea, doakotasun araubide-

an. Horrek zera esan nahi du: laguntza publikoa emateko jardueraren ordez zerbitzu publikoa emateko jarduera sartu dela, prestazioa emateko jarduera publikotzat ulertuta, pribatuarekiko lehian.

Botere publikoek alde batera uzten dutenean beharrezko laguntza ekonomikoa emateko arduraren hezkuntzarako eskubidea dutenei, oinarrizkoak bestelako ikasmailetan jarraitzeko gai direnean, eta, laguntza publikoen ordez, ikastetxe publiko eta doakoak jartzen dituztenean, hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukia urratzen ari dira. Izan ere, publikoak bestelako irakaskuntzara iristea galarazten zaie baliabide ekonomikorik ez dutenei eta, horrez gain, ez da kontuan hartzen hezkuntzarako eskubidearen oinarrizko edukia, askatasun-eskubide denez, irakaskuntza-mota aukeratu ahal izatea baitarama berarekin.

Gainera, ikastetxe publikoetako batxilergoaren irakaskuntza doakoa izateak, eta, halaz guztiz ere, hezkuntzarako eskubidea dutenei laguntza emateko erabiltzen dena ikastetxe publikoetako erdi mailako irakaskuntzaren doakotasuna Estatuari kostatzen zaionaren laurdena baino amiñi bat gehiago izateak, ez du justifikaziorik. Are okerrago, laurden hori ez da bideratzen erdi mailako ikasketak ikastetxe pribatuetan burutzen dituzten ikasleengana; aitzitik, hezkuntza-maila guztietara zuzentzen da, oro har, aurrekontuetan.

Horrek guztiak hezkuntzarako eskubidea erabiltzeko berdintasuna kontsideratzea dakar, ahaztu gabe laguntza publikoaren ordez hezkuntzaren zerbitzu publiko eta doako deritzan hori jartzeak irakaskuntzaren askatasunaren berezko esparrua murriztea dakarrela. Ikastetxe publikoei eta pribatuei pareko tratua emateko printzipioaren aurkako ere bada hori.

Beste alde batetik, interesatuek ikastetxe-mota bat edo bestea aukeratzeak ezin dio eskubidea erabiltzeko baldintzen berdintasunari eragin. Horrek ez dio diferentziak ezartzeko ahalmena kentzen legegileari, ikasleei laguntza publikoak emateko garaian, hezkuntza-eskubidearen titularraren gorabehera sozioekonomiko okerre aurre egiteko xedez. Konstituzio Auzitegia ere hala mintzatu da, eta zilegitzat jo ditu diferentzia horiek, eta beraz, ez lirateke berdintasun-eskubidearen aurkakoak izanen.

Ikastetxe publikoa edo pribatua aukeratzeagatik, ikasleek baldintza ekonomiko jakin batzuk dituztela jotzea bereizkeria litzateke, argi eta garbi. Hezkuntza-mota aukeratzea ez dator, nahitaez, planteamendu ekonomiko hutsekin bat, bidegabekeriak sortuko liratekeelako, bestela: alde batetik, beraien ahalmen ekonomikoarenga-

tik irakaskuntza ordaintzeko gai izanik, ikastetxe publikoren batera joan beharrik ez dutenen egoera; eta, bestetik, ikastetxe pribaturen bateko irakaskuntza ordaindu ahal izateko, beraien edo senideen ekonomia apalaren pentzutari neke handiak hartu behar dituztenen egoera.

Gizarte-ekimenaren aldeko hautua zigortzea Konstituzioaren aurkakoa dela esan daiteke, finantza-laguntza publikoa jasotzerakoan bereizkeria erabiltzen bada. Antzeko finantza-tratamendua behar dute irakaskuntza pribatuak eta irakaskuntza publikoak, funtsean. Bestelakoa, botere publikoek erabili behar duten tratu-berdintasunaren aurka joatea litzateke, argi eta garbi, aipatu hezkuntza-mailak, arian-arian, guztion esku jartzeko betebeharra gauzatzeko.

Horregatik guztiarengatik, berdintasuna urratzea, askatasuna urratzea ere bada. Botere publikotik nolabaiteko zigorra jartzen badiete beraien askatasuna edo funtsezko eskubideak norabide guztiz zilegian erabiltzen dituztenei, argi dago berdintasuna urratu ez ezik, askatasun edo funtsezko eskubide jakin bat erabiltzea oztopatu eta zaildu ere egiten dela, aldi berean: murriztu egiten da, hein batean edo bestean; Zuzenbideko Gizarte Estatuko botere publikoek EK-ko 9.2 artikuluan arabera egin behar dutenaren guztiz kontrakoa.

1. artikulua. LOGSEk ezarri dituen derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza mailak, batxilergoa eta erdi mailako lanbide heziketa, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte-ekimeneko ikastetxetan ematen direnean, dagokien hezkun-

tza-itun berezien xede izanen dira, abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuak ezarritako eran.

2. artikulua. Itundu daitezkeen ikastetxetzat joko dira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean kokatuta dauden gizarte-ekimeneko ikastetxe guztiak, baldin eta LOGSEren arabeko batxilergoko lehen maila, UBI, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasteko baimena badute.

3. artikulua. Aurreko artikuluan aipatzen diren ikastetxeek dagokien ituna izenpetuko dute Nafarroako Gobernuarekin. Itun hori 1998-99 ikasturtearen hasieratik sartuko da indarrean.

4. artikulua. LOGSEren arabeko batxilergoko lehen maila irakasteko eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren urteko zenbatekoa eta banaketa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko hamalagarren xedapen gehigarriaren bidez batxilergo bateratu balioanitzeko hirugarren mailarako ezarritakoa izanen da.

5. artikulua. Gradu ertaineko hezkuntza zikloen eta gizarte garantiako programen finantzaketa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko 35. artikuluko 2. idazatian xedaturikoaren arabera zehaztuko da.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzkoa

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetan gora-beherak izan dira azken honetan; batetik, 1997ko ekitaldian izandako defizitaren ondorioz ukituriko kontzeptuen aurrekontu dotazioetan kreditu-eskasia izan baita, eta bestetik, Nafarroako Ospitalean inbertsioak egiteko aurrekontuetan dagoen kontsignazio urriarengatik.

Gauzak horrela, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu osagarri bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

1. artikulua. 509.000.000 pezetako kreditu osagarri bat eman da Osasun Departamentuaren beharrei erantzuteko. Osagarri hori aplikatuko zaie aurrekontuetako ondoko kontusailei:

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 22960-5 lerroa, "Osasun laguntza beste zentro batzuetan" izenekoa: 13.400.000 pezeta.

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 22980-0 lerroa, "Etxez etxeko dialisietarako itunak" izenekoa: 5.000.000 pezeta.

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 22990-7 lerroa, "Oxigenoterapiarako itunak" izenekoa: 18.600.000 pezeta.

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 23000-0 lerroa, "Unibertsitateko Klinikarekin Ituna" izenekoa: 267.000.000 pezeta.

- 52230-6020-4127 kontusaila, 42000 proiektua, 95023-1 lerroa, "Zaharberritzeko planaren obrak" izenekoa: 105.000.000 pezeta.

- 52230-6057-4127 kontusaila, 42000 proiektua, 95021-5 lerroa, "Ekipamendu medikoa" izenekoa: 100.000.000 pezeta.

2. artikulua. Kreditu osagarri horren finantziazioa honako kontusaileko dirusarrerara handiagoen kontura egingen da: 11400-8700 kontusaila, 12000 proiektua, 35465-2 lerroa, "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izenekoa, 509.000.000 pezeta egin arte.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

**Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko
Foru Lege proposamena**

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Nafarroako Demokraten Elkargunea» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek aurkeztutako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposa-

mena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko ekainaren 3ko 39 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da José M^a Iribarren ikastetxe publikoan eta Ermitagaña BHIn D ereduko lerro bana ireki dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1998ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da José M^a Iribarren ikastetxe publikoan eta Ermitagaña BHIn D ereduko lerro bana ireki dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da José M^a Iribarren ikastetxe publikoan eta Ermitagaña BHIn D ereduko lerro bana ireki dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen du hurrengo ikasturterako D lerroa ireki dezan José María Iribarren Ikastetxe Publikoan eta D eredua baimen dezan Ermitagañako BHIn

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ave María ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleen taldea zatibitu dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1998ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ave María ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleen taldea zatibitu dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ave María ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleen taldea zatibitu dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen du Rotxapeako Ave María ikastetxean D ereduan matrikulatutako 30 ikasleen taldea zatibitu dezan.

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa San Francisco ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleentzat neurriak har ditzan eskatzen da

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1998ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa San Francisco ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleentzat neurriak har ditzan eskatzen da". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizilean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa San Francisco ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleentzat neurriak har ditzan eskatzen da

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen du San Francisco ikastetxean D ereduan matrikulatutako 27 ikasleen taldea zatibitu dezan.

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte-batxilergoaren irakaskuntzan, D eredua ezar dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1998ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte-batxilergoaren irakaskuntzan, D eredua ezar dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizilean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte-batxilergoaren irakaskuntzan, D eredua ezar dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen du Iruñeko Arte Eskolan D ereduko arte-batxilerra jar dezan ikasleen eskaerari erantzuteko eta horrela ikasketen garapen osoa ahalbidetzeko.

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Berako Labiaga ikastolarekin zerikusia duten zenbait neurri har ditzan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTERTUA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Berako Labiaga ikastolarekin zerikusia duten zenbait neurri har ditzan". Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1998ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, aurkeztutako mozioa baz-

tertu zuen. Mozio hori 1998ko ekainaren 17ko 45 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) zabalago egin dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTERTUA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) zabalago

egin dezan". Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1998ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko ekainaren 17ko 45 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, gaitzetsi egiten da Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzatik egiten ari den hezkuntza-politika

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, gaitzetsi egiten da Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzatik egiten ari den hezkuntza-politika". Biltzarra, 1998ko ekainaren 29an eginiko Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen.

Mozio hori 1998ko ekainaren 17ko 45 zk.ko Nafarroako Aldizkari Parlamentuko Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Bardeetako Tiro Poligonoari buruzko ebazpena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Bardeetako Tiro Poligonoari buruzko ebazpena, 1998ko ekainaren 30ean eginitako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

noaren iraunaldia ez luzatzeko, 2.001. urtean bukatuko den indarreko errentamendu-kontratua baino gehiago.

2. Nafarroako Parlamentuak protesta gogorra egiten du gauzez egiten diren hegaldiengatik, herrien gaineratik egiten diren hegaldiengatik eta soinuaren abiadura gairatzeengatik, beren arieketak egiteko Bardeetako Tiro Poligonora bidean doazen ehiza-hegazkinek egiten dituztenak.

3. Nafarroako Parlamentuak haxe erabaki du, Bardeetako tiro-poligonoa deuseztearen alde eta aipatu poligonoak Nafarroako herritarren zati bati eragiten dien eragozpenen aurka lan egiteko konpromisoari jarraituz: erabaki hau Defentsa Ministroari, Nafarroako Gobernuako Lehendakariari eta komunikabideei bidaltzea.

Bardeetako Tiro Poligonoari buruzko ebazpena

1. Nafarroako Parlamentuak bere borondate irmoa adierazi du, Erriberako udalekin eta Bardeetako Batzarrarekin batera, Bardeetako tiro-poligo-

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldadutzaren ordezkotza zerbitzua eta derrigorrezko soldadutza berehala desagertzearren alde dagoela

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: «Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldadutzaren ordezkotza zerbitzua eta derrigorrezko soldadutza berehala desagertzearren alde dagoela». Biltzarrak, 1998ko ekainaren 30ean eginitako Osoko Bilkuran, aurkeztutako

mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko ekainaren 24ko 48 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Berako Labiaga ikastolako egoera konpon dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak eta Errazti Etnikoa Foru Parlamentari andreak ondoko mozioa aurkeztu zuten: «Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Berako Labiaga ikastolako egoera konpon dezan». Biltzarrak, 1998ko ekainaren 30ean eginitako Osoko Bilkuran, aurkeztutako

mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko ekainaren 30eko 51 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagileek askatasunez preskribitzearen printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarrak, 1998ko ekainaren 30ean eginiko Osoko Bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagileek askatasunez preskribitzearen printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagileek askatasunez preskribitzearen printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, sendagileek askatasunez preskribitzearen printzipioa eta aldi baterako ezintasuneko alten kontrolean gaisoei laguntza integrala emateko eskubidea benetan errespetatu daitezkeen.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Gobernuari adieraz diezaion osasun sistema publikoko sendagileei aldi baterako ezintasunarengatik kontrola kenduko dien lan bajei buruzko errege dekretuaren aurka dagoela, atzerapausu soziala delako.

Amaierako lehen zikloko titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrek Funtzio Publikoan sartzeari buruzko ebazpena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, amaierako lehen zikloko titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrek Funtzio Publikoan sartzeari buruzko ebazpena, 1998ko ekainaren 30ean eginiko Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Amaierako lehen zikloko titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrek Funtzio Publikoan sartzeari buruzko ebazpena

1.- Nafarroako Parlamentuak bere gogoan adierazi du amaierako titulazioa duten lehen

zikloko unibertsitate tituludun espainiarrek Europako funtzio publikora iritsi ahal izan daitezkeen, Europako Batasuneko gainerako estatuetakoa lehen zikloko unibertsitate tituludunen baldintza berberetan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiari du Estatuko Gobernuari eta Diputatuen Kongresuari haxe helaraz diezaien: Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzeko lege aurreproiektua izapidatzerakoan, irtenbidea aztertu beharra dagoela amaierako titulazioa duten lehen zikloko unibertsitate tituludun espainiarrek Europako funtzio publikora iristeko garaian jasaten duten bereizkeriarentzat. Ikasleek eta unibertsitateek egin ditzaten proposamenak baloratuko dira horretarako.

F saila:
GALDERAK

Mendaviako hiri garraioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Mendaviako hiri garraioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kide den Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Mendaviako hiri garraioari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Herrilan Departamentuak ba al daki mila mendaviatarrek izenpetu dutela Lizarrarekiko hiri garraioa konpontzeko eskabidea?

Sarrera erregistroaren arabera, 1997ko irailaren 11n jaso zen Mendaviako Udaleko idazki bat, garai hartan zegoen zerbitzuagatik kexu ziren auzoen sinadurekin batera.

2.- Departamentuak berrikitan izapidatu al du administrazio-prozeduraren bat, bere kabuz edo zerbitzuaren emakidadunak eskatuta, La Estellesa enpresak ematen duen zerbitzuaren Mendaviako autobus-geltokiak aldatzeari buruz?

La Estellesa, SA enpresa emakidadunak aurkeztu zuen eskariaren ondorioz, uztailaren 1eko 234/1997 ebazpena eman zuen Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak, eta hauxe baimendu zuen hiru hilabeterako, behin-behinekoz: Logroño-Lizarra-Donostia emakidaren barruan, Logroño eta Urantzia lotzen dituen zerbitzuak, Elizagorriako saihesbidetik diraganak, Mendavian kera egitea bidaiariak hartu eta uzteko, eta, aldi

berean, Logroño-Lizarra-Iruña emakidako Mendavia-Lizarra bidaia kentzea.

3.- Departamentuak ba al daki Mendaviako Udalak edo Mendaviako herritarrek edo erakundeek alegaziorik aurkeztu al zioten aipatu prozedurari?

Emakiden behin-behineko aldaketari ez zitzaion idatzizko alegaziorik aurkeztu lehen erantzunean esandako egunera arte, Mendaviako Udaletik Departamentu honetako Garraio Zerbitzura deitu bazuten ere.

4.- Jendaurreko informaziorik izan al zen aipatu zerbitzuaren aldaketa erabaki aurretik? Azaldu al zuten herrian aldaketaren nondik norakoa eta Mendaviari ekarriko zion eragina?

Ez. Busaren geltokirik ez zenez aldatu, ez zen beharrezkotzat jo.

5.- Herrilan Departamentuak ba al daki bus-geltokiaren aldaketa baimen espresurik gabe egin ote den? Egoki irizten al dio Departamentuak neurriren bat hartzeari?

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas jaunari erantzun nion bezala: horretarako baimenik gabe egin zen bus-geltokiaren aldaketa. Garraio Zerbitzuak, Mendaviako Udalak egindako kexuaren berri izan zuenean, idazkia bidali zion La Estellesa, SA enpresari 1997ko irailaren 22an, eta gaztigatu zion 234/1997 Ebazpenez baimendutako aldaketak ez ziela Mendaviako auzoei eragiten, eta ondorioz, aipatu herriko hirigunean jarraitu behar zuela bidaiariak hartzeko kera egiten, ordura arte egiten zuen bezala.

Egun berean bidali zion Mendaviako Udalari beste idazki bat La Estellesa, SAri bidalitakoaren edukiaren berri emateko, Garraio Zerbitzuko Zuzendariak telefonoz horren berri emateaz batera Alkateordeari.

6.- Egiaztatu al ditu Departamentuak, bere kabuz edo udalaren bitartez, geralekua herriaren erdigunean jarriz gero, harainoko bidearen segurtasun baldintzak? Hala bada, zer erabaki hartu du horri buruz eta zer hobekuntza aurreikusi du?

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas jaunari erantzun nion bezala: 1997ko urriaren 7an, La Estellesa, SA enpresak alegazioak aurkeztu zizkion Garraio Zerbitzuak bidalitako idazkiari. Ondorioz, 1211/1990 Errege Dekretuko 75. artikulua xedatua betez, erabaki zen aipatu Zerbitzuko teknikariak Mendaviara joatea eta han bertan finkatzea bus-geltokirako tokirik egokiena, Udaleko ordezkariekin batera.

Egindako ikuskapenaren ondorioz jabetu ziren busa Mendaviako hirigunean sartzea gasolindegitik kilometro eta erdi desbideratzea zela, egin behar den maniobra kontuan hartuta, eta horrek denbora-galtze handia ekartzen ziela Logroño-Lizarrá-Donostia lineako bidaiariei. Beraz, ez zen neurri egokia.

Ondorioz, uztailaren 1eko neurria behin-behinekoa zela kontuan hartuz, eta Mendaviako auzoek eta Udalak duten interesa aintzat hartuz, ale-

gia, busak hirigunera sartu behar duela bidaiariak hartzeko, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak Ebazpena eman du La Estellesa, SA enpresari esleitutako behin-behineko baimena bertan behera uzteko, eta Mendavia eta Lizarraren arteko zerbitzuari berriro ekiteko, Logroño-Lizarrá-Iruña emakidaren barruan, emakidaren oinarrien orrian zeuden baldintzen arabera, uztailaren 1eko ebazpenaren aurretik indarrean zeudenen arabera, alegia. Azken Ebazpen honen berri ere eman zitzaion Mendaviako Udalari, alde aurretik, telefonoz.

7.- Zergatik utzi du Departamentuak atsekabea horrenbestearaino hel dadin? Zer urrats, izapide eta erabaki hartu ditu joan den uztailatik hona herritarren nahia asetzeko?

Bosgarren eta seigarren galderen erantzuntan erantzuten zaio inplizituki galdera honi.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluaekin eta hurrengoekin bat etorritik.

Iruñean, 1997ko urriaren 21ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko Plana (1998-2005)

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Gobernuak, 1998ko ekainaren 22an hartutako erabakiaren bidez, hauxe bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan: Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko Plana (1998-2005).

Horiek horrela, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat,

ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko Plana (1998-2005) tramitera onartzea.

Bigarrena. Hari buruzko iritzia Gizarte Gaietako Batzordeak emango duela xedatzea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

(Oharra: Planaren testua Foru Parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--